

1955-VI-24

Donostian, milla bederatzireun eta berrogetamaboskarren Bagilla-Garagarriaren ogetalauan, Ekauta jauregian, Etxaide, Lekuona, Dassance, Lafitte, Mitxelena, Mulier, Villasante ta Oleaga euskaltzainak eta Lojendio ta Arrue euskaltzainordeak baturik gaurko deitutako batzarra egiten dau Euskaltzaindiak.

Maipuru Etxaide jauna.

Araudizko otoitzez asten da batzarra.

Artutako erabagiak, onexek:

Oraintsuko sari batzaldian saritutako ipuin sorta edo bildumak, ainbat lasterren argitaratzea, guztiak batera ezin bada, zatika.

Batzaldi berean "Amabost egun Urgainen" deritzan aipamendun gertirudiaren egille Antonio Loidi'ri, gertirudi ori argitaratzeko eskatzen dauan baimena emon.

Dagonilako batzarra Baionan, "Musée Basque"n egitea.

Araudizko otoitzez amaitu da batzarra.